

Gizakiek alkaloide tropanikoekiko duten esposizioaren ebaluazioa

2013an, EFSA CONTAM panelak hiosziaminaren eta eskopolaminaren esposizioa ebaluatu zuen (gorputz-pisuko kiloko 16 nanogramotan ezarri zuen erreferentziazko dosi konbinatu akutua), eta urtebete eta 3 urte bitarteko haurrak izan lezaketen esposizioaz ohartarazi.


Berriki argitaraturiko txosten zientifiko honetan, ebaluazio sakonagoa egin dute: zehazki, Europako 13 herrialdetan 2009tik 2016ra lagindutako 31 alkaloide tropanikoren 39.725 emaitza analitiko aztertu dituzte.

Emaitza analitiko gehienek (% 95) detekzio- edo kuantifikazio-mugaren azpitik eman zituzten datuak.

Hala ere, atropinaren eta eskopolaminaren kontzentrazio handiak aurkitu ziren tean eta belar-infusioetan, zereal-barretan eta espezetan.

Eguneroko batez besteko esposizio akutua handiagoa izan zen 0 eta 10 urte bitarteko adin-taldeetan (hiosziamina eta eskopolaminaren arteko batura).

Oro har, elikagai prozesatuen artean, ogiz eta zerealez egindako jakiak eta te- eta belar-infusioak izan ziren adin-talde guztietan esposizioa (atropina+escopolamina) eragin zuten elikagai nagusiak.



(<https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Scopolamine3DanBS.gif#/media/File:Scopolamine3DanBS.gif>)

De Fuse809 (<https://en.wikipedia.org/wiki/User:Fuse809>) de Wikipedia en inglés (<https://en.wikipedia.org/wiki/>), CC BY-SA 3.0 (<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0>), Enlace (<https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=31652563>)

Human acute exposure assessment to tropane alkaloids (<http://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.2903/j.efsa.2018.5160/full>)